



Bada urte eta erdi auzoko emakume batek etxejabe-elkarteko kuotak ordaintzeari utzi ziola. Haren esanetan, ez da bera etxearen jabea, eta ez du berak ordaindu behar. Kontua da, bannandu denez gero, ez senar ohiak –hura da etxearen jabea– ez emakumeak –hura bizi da etxean, haurrekin–, ez dutela ordaintzen. Etxejabe-elkarteko lehendakariak gizonarekin hitz egiten duenean, hark esaten dio emazte ohiak ordaindu behar duela, eta harekin hitz egiten duenean, senar ohiaren betebeharrak dela erantzuten dio. Zer egingo dugu ordain dezaten?

Jabetza Horizontalaren Legearen 9. artikulua esaten duenez, etxejabe bakoitzak adostutako parte-hartze kuota ordaindu behar du, gastu orokorrak zenbatekoak diren aintzat hartuta. Honako hauek osatzen dituzte gastu horiek: higiezi-nari eta zerbitzuei eusteko behar direnak, kargak eta erantzukizunei dagozkienak. 2005. urteko maiatzaren 25eko epaian, Espainiako Auzitegi Gorenak zera ebazti zuen: artikulua horren arabera, etxearen jabeen zeregina da gastu orokorrak ordaintzea, ez erabiltzaileena. Bestalde, Madrilgo Probintzia Auzitegiak 2009ko otsailaren 13ko epai batean adierazi zuenez, Jabetza Horizontalaren Legea etxejabeen buruz soilik ari da, etxejabe-elkartearikiko harremanetako subjektu aktiboak

edo pasiboak aipatzen dituenen. Etxe baten jabeen artean sor daitezkeen desadostasunak edo barne-arazoak, edo etxejabearen eta pisu baten erabiltzaileen artean sor daitezkeenak, modu pribatuan konpondu beharko dira, eta ez du eraginik izan behar ez etxejabe-elkartean eta ez haren funtzionamendu orokorrean ere. Hori dela eta, iruditzen zaigu batzarrera deitu behar direla etxejabeak, eta ordaintzen ez duen etxejabearen aurkako auzibidea abiatu behar duzuela, nahiz eta hobe den akordio batera iristea. Edonola ere, auzitara jo aurretik, etxejabe-elkartean zorraren likidazio-ziurtagiri bat egin behar du, eta etxejabeari helarazi behar dio, burofax bidez. //



Hiriaren aldirietan bizi naiz, eraikin batean, eta handik gertu etxe bat dago, bere lursailarekin, eta txakurrak ere badituzte, txakurtegi-kaiola moduko batean sartuta. Baldintza penagarrietan bizi dira, eta uluka eta zaunkaka ari dira etengabe. Lorik egiten ere ez didate uzten. Jabearekin ezin da hitzik egin; txakurrak bereak direla eta nahi duena egingo duela esaten du. Zer irtenbide eman diezaioket?

Batetik, zaraten kontua daukagu, ondoko etxebizitzan egunez eta gauez sortzen diren hotsak zurean entzuten direla. Eta, bestetik, txakurren bizi-baldintza itxuraz kaskarrak daude. Azken auzi horri dagokionez, jakin ezazu autonomia erkidego bakoitzak bere legedia duela animaliak babesteko, baina, oro har, jabearen betebehartzat jotzen dela animaliak zaintzea, higiezi- eta osasun-egoera onean edukitzea eta bizitegi egoiak ematea. Eta zeregin horiek behar bezala bete ezean, zigor administratiboak ezarriko zaizkio (isunak izan daitezke). Animaliei bizitegi desegokiak ematea edo higiezi-baldintza kaskarretan edukitzea, berez, lege-hauste arintzat jotzen dira, eta isuna 300 eurorainokoa izan daiteke. Bestalde, animaliak babesteko legeak dio udalerri bakoitzeko alkatearen ardura gorena dela haren eremuko animaliak babestea.

Zarata-maila onargarriak eta soinu-emisio gehiegizkoak kontrolatzeko udal ordenantzak izaten dira, ostera. Gure ustez, bizilagunarekin arazoa konpontzen saiatu behar zenuke, baina lortuko ez bazenu, joan zaitez udaletxera eta jar ezazu salaketa, bai soinu-emisio trabagarriengatik, bai animalien bizi-baldintzak direla eta; udalak bidal dezala ikuskari bat, eta, behar balitz, har ditzala neurri zigortzaileak eta zuzentzaileak. Udaltzainetara ere dei dezakezu, eta animaliak babesteaz arduratzen den elkarteren batekin harremanetan jar zaitezke. //

DUDA LEGALAK consultoriolegal@consumer.es

Legearekin zerikusirik duen dudarik izanez gero, emaila bidali dezakezu aldizkari honetara. Kasu bakoitzaren aukerak aztertu ondoren, EROSKI CONSUMERen zerbitzu juridikoek gehien komeni den aholku juridikoa emango dute. Hala ere, orientabidea baino ez dute eskainiko. Lege kontuak konplikatuak dira eta epaian zein epaibidean eragiten duten era askotako elementuak hartu behar dira kontuan, kasuan kasu.

Gogoratu, bestetik, kasu bakoitzari emango zaion erantzun bakarra orrialde hauetakoa izango dela.

ANTZEKO KASUETAN, EPAIAK DESBERDINAK IZAN DAITEZKE

Atal honetan era askotako zerbitzu eta hondasunei buruzko epaiak jaso ditugu, kontsumitzaileen intereseko izan daitezkeelakoan. Baina epaiak ematerako orduan ezin dira bi kasu, antzekoak izanagatik ere, bere horretan konparatu eta epaia berdina izango dela pentsatu. Kasu bakoitzean dauden frogak, alde bakoitzaren egoera zehatzak eta epaimahaiaren osakerak, besteak beste, halako edo bestelako epaiak ematea eragingo du.

HORTZ-KLINIKAREN ERANTZUKIZUNA



Aurrekontuan ageri zen baino 800 euro gehiago kobratu zizkieten

Protesi finkoak zituen emakume batek hortz-klinika batera jo zuen, 10 hortz-pieza mugitu egiten zitzaizkiola eta. Klinikari diagnostiko bat eskaini zioten, tratamendu bat eta aurrekontu bat ere bai; emakumeak onartu, eta ordaindu ere egin zuen. Lehendabizi, hiru hortz-pieza kendu zizkieten, eta inolako funtziorik gabe geratu zen horien gainean bermatua zegoen protesia; ondorioz, ordezko inplante batzuk jarri behar izan zizkieten. Zail samarra gertatu zen eragiketa hori, emakumeak oso eskastua baitzeukan ahoko hezur-egitura. Hori ikusita, ordezko tratamendu bat jarri behar izan zioten, eta horrek 840 euroan garestitu zuen prezioa. Emakumeak uko egin zion ordaintzeari, eta salaketa jarri zuen dentisten eta klinikaren aurka; 24.000 euroko kalte-ordaina eskatu, eta irabazi egin zuen epaiketa. Madrilgo Probintzia Auzitegiaren iritziz, frogatuta geratu zen emakumeari tratamendu osatugabea eta akastuna eman ziotela. Auzitegiaren ustez, ez zegoen motiborik aurrekontua handitzeko, eta diagnostikoan huts egiteaz gain, informazioa jasotzeko eskubidea ere ez zioten errespetatu gaixoari. Hori dela eta, 20.000 euro ordaintzera zigortu zituen salatuak.

BIDAIA KONBINATUAK

la 800 euroko kalte-ordaina eman diote bikote bati, 'overbooking'-agatik eta kontratua ez betetzeagatik

Bikote batek eztei-bidaia kontratatu zuen agentzia batean, Costa Ricara joateko. Irteerako hegaldean, *overbookinga* izan zen, eta, hori dela eta, konpainiak 1.200 euroko kalte-ordaina eman zien, 600 euroko bakoitzari. Bikotearen ustez, ordea, bidaia-agentziak ez zien informazio ego-kia eman *overbookinga* jasateko aukeraz, eta, beraz, itzuli zirenean, 900 euroko ordaina eskatu zioten bidaia-agentziari. Auzitara iritsi ziren; 900 euroko kalte-ordaina eskatu zuten, bidaia konbinatuaren kontratua behar bezala ez betetzeagatik, eta 900 horien barnean, agindu bai baina eskaini gabe utzitako zerbitzuengatik, 7 euro eskatu zituzten. Madrilgo Probintzia Auzitegiak 2012ko urtarrilaren 17an eman zuen epaia. Han esaten duenez, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Legearen arabera, xehekari betebeharrak da bidaiaren oinarriko alderdiei buruzko informazio argia, ulergarria eta zehatza ematea. Kasu honetan, ordea, frogatutako eman zuen informazioa emateko betebeharrak hori ez zela era horretan gauzatu. Hori dela eta, 893 euro ordaintzera zigortu zuen agentzia, baina ez salatzailerak eskatu zituzten 900ak, ez baitzuen onartu 7 euroko ordaina ematea eskaini gabe utzitako zerbitzuengatik.

ILE-APAINDEGIAN EMANDAKO ZERBITZU KASKARRA DELA ETA

Ile-luzapenak egin, eta erdiak erori egin zitzaizkion

Neska bat ile-apaindegira joan zen ile-luzapenak egitera, baina handik gutxira, erori egin zitzaizkion. Salaketa jarri zuen saltokiaren aurka, eta 750 euroko kalte-ordaina eskatu zuen. Epaietan esan zuenez, ile-luzapenak egin eta gutxira, ilea garbitu zuen, eta ezin izan zuen orraztu, dena korapilatua zeukalako. Gainera, kizkurtu egin zitzaizkion luzapenak, eta ilea erori egin zioten luzapenak jarri aurretik. Laburbilduz: luzapen erdiak erori zitzaizkion, eta keratina bidezko bi tratamendu eman zitzaizkion luzapenak lehengoratzeko, baina ez zuten lortu. Ile-apaindegian ez zuen onartu kalterik egin ziotenik eta lana ongi egin zegoela argudiatu zuen, eta kontsumitzaileak bere kabuz zerbitzu egin izango zuela iradoki zuen: ilea berriz moldekatu izango zuela, beste zentzoren batera joan izango zela edo produkturen bat eman izango ziola ileari. Zaragozako Probintzia Auzitegiak, 2011ko abenduaren 27an emandako epaian, aintzat hartu zuen salaketa, eta 750 euro ordaintzera zigortu zuen ile-apaindegia, frogatutako eman zuelako kausalitate-harremana egon zela luzapenak egitearen eta ondoren agertu zen emaitza kaltegarriaren artean.

